

## OROITZAPENEN PIRAMIDEA

|| *Xabier Gantzarain*

Hor dagoen hori ez naiz ni. Ni behean nago, aspaldi nago, gurasoekin, lagunekin, atrakzio guztietara sartu nahi dut, tripak bueltak ematen dizkidala sentitu, oihu egin, beldurra hartu beldurra emateko geletan (eta ez eguneroko bizitzan, batere abisurik gabe). Ni behean nago, ume moko bat naiz, eta jada badakit zer den aspertzea, eta horregatik pasatzen dut hain ondo hemen, dena zirraragarria da. Eguna zoragarria izan da, badakit ez naizela puska batean itzuliko.

Txikitan egunak luzeak ziren, baina zoriotsu zinelako.

Hor dagoen hori naiz ni. Aspaldi izan nintzen umea, oroitzapenak dauzkat, eta denak ez dira onak. Baina Artxandakoak bai: zoriontasunerako sarrera metalikoak ditut gogoan, mandrilen ipurdi gorriak, ispiluen gela. Gure zalaparta eta presa, dena ikusi eta probatzeko irrika, eta gurasoen poza, gu pozak zoratzen ikusita. Etorri bezala doazkit oroitzapenak, eta neure burua gela ospel honetan ikusita, iraganaren beharra sentitu dut, ez ordea neure burua hobeto ezagutzeko, izan naizela sentitzeko baizik. Eguna zoragarria izan da, badakit ez naizela berriro itzuliko.

Bat-batean piramidea ikusi dut leihotik, eta Egipto zaharra bezain urrun iritzi diot, orain dela 4.500 urteko haurtzaroari.

Handitan egunak luzeak dira.

.. Saioa Olmok eta Consonnik antolatuta, bisita gidatuak egiteko modua izango da, Artxandako Parkea ikusteko. Argazkian, garai batean buroak izan zirenak ageri dira.

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

[xgantzarain@berria.info](mailto:xgantzarain@berria.info)



